

## **Ameriketara artzain joaita**

E.: eta laketa ukan duxu artzain ofizioa?

M.: ah ba, ez da nekia, eh?

E.: ez? Ez zauxia iduritzen?

M.: ez zulaik besteik ikusten, ta geo han e, Ameiketara e beti artzain egon niz, eh! Zonbaitzu eneaten dira bena ni ez nintzan eneatia, eh!

E.: zonbat urthetan partitu xinen Ameiketara?

M.: uh, hoita bat urtetako an, (...) sei urte.

E.: nola joan xinden?

M.: abionian.

E.: ordukotz deia avionian joan xinen, eh?

M.: aho ui, oui, ba, ene kusi batzu-ta joan zien eta Serdan famatia bazen boxalaria, fighter, hain avionean gertatu eta denak garbitu zien, hori aspaldian en cinquante, eh! Ta ba ni beanto joan niz, benan bof ez zitzaan pir inportaik, avionian lo in nien denbora guzia.

E.: ah ba, eh?

M.: gustian! Zonbaitek beldurraikin dia, eh, pitsik! Non, non.

E.: ah ba, ba, ba. Lasai in xindien, beraz, bidaia.

M.: geientsiak avionian joaiten zien, eh! Bazen emen Donianen Charles Iriart, famatia zen ola jendendako, Ni, aldiz, Monlong zahar batekin nintzan, undarretaik, eh! Hua re adina baitzien, ara, noekilan hasten zinen, ta hek launtzen zizute paper iten-ta.

E.: eta haat heldu ta ze iduritu zitzauxun ua?

M.: toki ederra uzu, eh!

E.: ba? Maite ukan xindien haat hel eta?

M.: hunat jin eta zonbait urte pasatu re ba...

E.: ezin usaia hartuik, eh?

M.: oh, oh!

E.: geo oixtian erran duxu, ono ez bitzen lanian ari ta, erran duxu oixtian aski leku lasaia edo ukan zindiela, beden, jendez inguratia, ta...

M.: ah ba, ba, ba, jenden artian, leen bi urtiak artzain, eta gero beste hiru-lau urtiak kanperonintzan, ordian nausiain arrantxoan nintzan, nausiakin bizi, ta geo negian, ordian joaiten nintzan luzernetaat, bena ordian e niaun ardier kasu iten nien, ta ono beste artzainer jatekoak eta eremaiten, gauaz eta olaxet, erdi kanperon, erdi artzain.

E.: erdi kanperon, erdi artzain.

M.: ta undar urtian, ordian joan ginen urruno, eta ordian, niaur nintzan hantxet, eta hurak inguratu, ta ba, ze in nien? Bost aste, eta geo ez baitzien, beste tokiak in nien ba galdina, bena hua re hura lanjerrian zen, eta joan ginen nausiain arrantxoat, aldeat.

E.: zerren lanjerra?

M.: hurez inguratzen ziren, ba, ba, eguerri gauian eta arrantxeroa jin zitzaan: oh, bea uzu hortik lekutu”, “nora joain niz gauaz ardiekilan”, “ba, alta, hura eldu da”. Kanala bazen ondoan, bena bon, jin zen kanalian hura xorta at, bena ez gaidikatzekoik, eh! voilà.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala